



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



MATRIKULAZIO-ARAUDIA 2020-2021 IKASTURTEA

2018an, 2019an, 2020an
JAIOTAKO HAURRENTZAT



UDALAREN HAUR ESKOLAK



AURKIBIDEA

1. Sarrera.	3
2. Udalaren Haur Eskolak: antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko alderdiak.	4
2.1. Udalaren Haur Eskolak.	4
2.2. Hezkuntza-mailak eta ikasgelak.	4
2.3. Egutegia.	5
2.4. Ordutegiak.	5
2.5. Elebitasuna.	5
2.6. Jantoki-zerbitzua eta siesta.	6
3. Udalaren Haur Eskoletan sartzeko moduak.	8
3.1. Matrikula berritzeko eskabideak.	8
3.2. Udalaren Gizarte Zerbitzuek proposatuta egindako izena emateko eskabideak.	9
3.3. Izena emateko eskabide berriak, epe arruntaren barnean egindakoak.	9
3.4. Izena emateko eskabide berriak, ikasturtean zehar egindakoak.	10
4. Izena emateko eta matrikulatzeko epe arrunta.	13
4.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.	13
4.2. Behin-behineko zerrendak eta itxarote-zerrendak.	14
4.3. Erreklamazioetarako epea.	14
4.4. Behin betiko zerrendak.	15
4.5. Matrikula gauzatzeko epea.	15
4.6. Hutsik dauden lekuen eta itxarote-zerrenden kudeaketa epe arruntaren barnean.	16
5. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.	17
6. Onartzeko baremoa.	23
7. Eskola-lekua gordetzea eta hutsik geratu diren lekuak kudeatzea ikasturtean zehar.	26
7.1. Eskola-lekua gordetzea.	26
7.2. Familiek eskatutako bajak.	26
7.3. Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz baja ematea.	27
8. 2020-2021 ikasturterako tarifak.	28
8.1. Zerbitzuaren prezioa.	28
8.2. Aplikazio-arauak.	29



1. Sarrera.

Vitoria-Gasteizko Udalak Haur Hezkuntzako bost eskolaz osatutako sare bat du, eta Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak zuzenean kudeatzen ditu eskola horiek. Eskola-sarea 0 urtetik 3 urtera arteko hurrei zuzendutako hezkuntza-zerbitzu bat da, eta, aldi berean, bizimodu pertsonala, familiarikoa, harremanak eta lana uztartzeko aukera ematen duen baliabide bat.

Udalaren Haur Eskoletan, hezkuntzan eta zeregin ludikoan oinarritutako hezkuntza-proiektu baten aldeko apustua egiten dugu, haurren oinarrizko eskubide diren heinean. Haurren behar fisikoei, afektiboei eta emozionalei erantzuteko premiatik abiatuta, familiarik harreman estuan, haien nortasunaren garapen harmonikoa lortzen lagundu nahi dugu, ikuspegi afektibotik, intelektualetik, sozialetik eta kulturaletik.

Lehen haurtzaroari zuzendutako arretan eta hezkuntzarako berezko eskubidean egindako ibilbide luze eta sakonarekin bat etorritz, Udalaren Haur Eskolek egungo gizartearen premien arabera egokitzeko eguneratze pedagogiko iraunkorra egiten dute. Horregatik, 2019ko abenduaren 11n Udalaren Haur Eskolen Sareko Eskola Kontseiluak “Udalaren Haur Eskolen Sareko Hezkuntza Proiektu” berria onartu zuen. Proiektu horrek Sarearen printzipio pedagogikoak eta hezkuntza-praktika markatuko ditu datozen urteetan. Gaur egun, bost eskoletako Hezkuntza-proiektuak berregiten ari dira.

2020-2021 ikasturterako Matrikulazio-araudi honetan, Udalaren Haur Eskolen funtzionamenduari buruzko informazioa ematen da, eta, horrez gain, sartzeko baldintzei eta matrikulatzeko prozedurari buruzko bai eta kasu bakoitzari dagozkion kuotei buruzko informazioa ere.

Hala ere, SARS-CoV-2 izeneko koronabirusak eragindako osasun-krisia eta haren transmisioa murrizteko unean-unean hartzen diren neurriak direla eta, baliteke araudi honetan arautzen diren alderdietariko bat edo batzuk aldatu behar izatea.

Udalaren Haur Eskolen 2020-2021 ikasturterako Matrikulazio-araudia Vitoria-Gasteizko Udalaren Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak onartu du, 2020ko maiatzaren 21ean.



2. Udalaren Haur Eskolak: antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko alderdiak.

2.1. Udalaren Haur Eskolak.

Honako hauek osatzen dute Udalaren Haur Eskolen Sarea:

- Haurtzaro Haur Eskola (Santa Maria kantoia, z/g – Hirigune Historikoa).
- Lourdes Lejarreta Haur Eskola (Blas de Otero, 12 - Lakua).
- Sansomendi Haur Eskola (Valentin de Foronda, 4 - Sansomendi).
- Zabalgana Haur Eskola (Ilustrazioaren hiribidea, 46 - Zabalgana).
- Zaramaga Haur Eskola (Nafarroako Errege-erreginak, 16 B - Zaramaga).

2.2. Hezkuntza-mailak eta ikasgelak.

Udalaren Haur Eskoletan, 0 urtetik urtebete arteko haurrak, urtebetetik 2 urtera artekoak eta 2 urtetik 3 urtera artekoak matrikulatu ahal izango dira. Horregatik, 2018., 2019. eta 2020. urteetan jaiotakoak hasiko dira 2020-2021 ikasturtean. 16 aste beteta izan behar dituzte haurrek, eta, oro har, adopzio-kasuetan ere baldintza hori errespetatuko da.

2020-2021 ikasturtean, Udalaren Haur Eskolek ikasgela kopuru hau eskainiko dute:

Eskola	0-1 urteko ikasgelak	1-2 urteko ikasgelak	2-3 urteko ikasgelak
	Ratioa: 8 haur	Ratioa: 13 haur	Ratioa: 18 haur
Haurtzaro	1	2	1
Lourdes Lejarreta	1	3	2
Sansomendi	1	3	2
Zabalgana	2	3	1
Zaramaga	1	3	2
Ikasgelak guztira	6	14	8

Ikasgelen hasierako plangintza hau, hezkuntza-mailen arabera, aldatu egin daiteke matrikulazio-prozesuaren eskari errealaren ondorioz.



2.3. Egutegia.

Udalaren Haur Eskolek 2020ko irailetik 2021eko uztaiera emango dute zerbitzua, biak barne. Ikasturtearen hasieran emango zaie familiei behin betiko egutegia, eta talde edo ikasgela bakoitzaren irekitze-egunak eta funtzionamendu bereziko aldiak adieraziko dira bertan.

Hainbat arrazoi tarteko (hezitzaileen opor-egutegia, hezitzaileek planifikazio eta ebaluazioko zereginak egin behar izatea, eta hezitzaileen prestakuntza-jarduerak), Gabonetan, Pazko astean, ekainaren amaieran eta uztaieran eskolek antolakuntza desberdina izan dezakete.

2.4. Ordutegiak.

Hezkuntza-maila guztien kasuan (zero urteko, urtebeteko eta bi urteko gelak), 08:00etan irekiko dira eskolak, eta 16:00etan itxi; eta bi ordutegi hauek eskainiko dira:

- Goizeko ordutegia: 08:00etatik 13:00etara.
- Jangela eta siesta barne hartzen dituen ordutegia: 08:00etatik 16:00etara.

Sartu eta irteteko ordutegi malgua izango da:

- Sarrera: 08:00etatik 09:30era.
- Irteera goizeko ordutegian: 12:30etik 13:00etara.
- Irteera jangela eta siesta barnean hartzen dituen ordutegian: 15:30etik 16:00etara.

Haurrei eta familien beharrei arreta hobea eskaintze aldera, sarrera eta irteera malgu horiek aldaketarik izan dezakete. Halakoetan, garaiz jakinaraziko da aldaketa.

08:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegian, eskola bakoitzak, bere antolaketa-aukerak aintzat hartuta, bazkal ostean irteteko aukera ezarri ahal izango du, 13:30ean, gutxi gorabehera. Ordu horretan irtetea aukeratzen bada, hau da, siestarik gabe, ez dio inola ere eragingo 08:00etatik 16:00etara arteko ordutegiaren tarifari.

2.5. Elebitasuna.

Udalaren Haur Eskolek, hezkuntza-jarduketaren hasiera-hasieratik, Euskal Autonomia Erkidegoko bi



hizkuntza ofizialetan elebitasuna bermatzeko baldintza optimoak bultzatzen dituzte, eta inguru egokia sortzen dute, komunikaziorako eta ikaskuntzarako hizkuntza gisa euskararen erabilera bermatzeko; aldi berean, familien nahia kontuan hartzen dute, hizkuntzari dagokionez.

2.6. Jantoki-zerbitzua eta siesta.

Eskola guztiek eskaintzen dute jantoki eta siesta-zerbitzua. Zerbitzu hori, funtsean, lan-merkatuan ari diren guraso edo legezko tutoreak dituzten familiei edo horren antzeko egoera dutenei zuzenduta dago.

Eskolek beren sukaldea dute. Horregatik, jantoki-zerbitzuan eskainitako janaria eskoletan bertan egiten da, Udalaren sukaldariak egina, garaikoak diren eta, hein handian, ziurtagiri ekologikoa daukaten produktuak erabilia. Eskaintzen den menua basala da, aztertuta eta egokituta dago matrikulatuta dauden haurren adinen eta beharren arabera, eta hilabete hotza edo beroa den ere kontuan hartzen da.

Oinarrizko menu horretatik abiatuta, aldaketak egin ahal izango dira intolerantzia edo alergia medikoen ondoriozko premiei erantzun ahal izateko, bai eta familiak jarraitutako dietari dagokionez ere, betiere beharrezko aldaketak dauden baliabideekin egin ahal badira, eta "2020-2021 ikasturterako Erabilera-araudian" zehaztutakoa kontuan hartuta.

08:00etatik 16:00etara arteko ordutegiko lekuak (jantoki-zerbitzua eta siesta barne) eskola batean sartzeko aukera lortu dutenen artean banatuko dira. Guraso biak edo legezko bi tutoreak lan-merkatuan lanean dituzten familiek (bi guraso dituzten familietan) edo gurasoa edo legezko tutorea lan-merkatuan lanean duten familiek (guraso bakarreko familietan), edo horren antzeko egoera dutenek (baremoaren arabera) izango dute lehentasuna; hau da, egoera hori justifikatzen ez duten familien eskabideen aurretik jarriko dira horiek, araudi honetan finkatzen den baremoaren arabera ematen zaien puntuazioa edozein delarik ere.

Jantokiaren noizbehinkako erabilera:

Jantokia erabiltzeko behar puntualei dagokienez, jantoki-zerbitzua eta siesta barnean hartzen dituen ordutegian (08:00etatik 16:00etara) matrikulatuta ez dauden haurrek jantokira joateko aukera izango dute, betiere, eskaera egin den egunean tokirik baldin badago. Horretarako, haur eskolan egin beharko da eskaera, eta tarifari %10 gehitu ondoren hura hainbanatzetik ateratzen dena ordaindu beharko da.



Jantoki-zerbitzuan lekua gordetzea:

Arrazoi medikoengatik edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik, Hezkuntza Zerbitzuari idatziz jakinarazita, 08:00etatik 16:00etara bitartean matrikulatutako familiek jantoki-zerbitzuan soilik plaza erreserbatu behar badute (13:00etatik 16:00etara), hilabete baterako edo birako egin ahal izango dute. Horrelakoetan, erreserba aldian 08:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegiari dagokion kuota ordainduko dute, eta 13:00etatik 16:00etara bitarteko ordutegiari dagokion kuotaren %50, jantoki-zerbitzua barne dela.

Eskaera idatziz egingo da, Herritarren Arretarako Bulegoetan, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako moduan, eta haurra matrikulatuta dagoen eskolako Zuzendaritzari jakinaraziko zaio.

Jantoki-zerbitzuan baja ematea:

- Jantoki-zerbitzua daukaten familiek, hala nahi badute, zerbitzu hori bertan behera uzteko eskaera egin ahal izango dute, eta 08:00etatik 13:00etara bitarteko zerbitzura aldatu ahal izango dira; kuota ere egokituko da. Idatziz egingo da eskaera, Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, nahiz 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan aurkeztuko da, eta haurra matrikulatuta dagoen eskolako Zuzendaritzari jakinaraziko zaio.
- Haur batek ondoz ondoko hamar egun baliodunetan jangela erabiltzen ez badu eta familiaren aldetik inolako jakinarazpenik egin ez bada edo arrazoibiderik eman ez bada, Hezkuntza Zerbitzuak jantoki-zerbitzuaren baja ofizioz kudeatu ahal izango du.



3. Udalaren Haur Eskoletan sartzeko moduak.

Udalaren Haur Eskoletan sartu ahal izateko, eskaera eta dagozkion agiriak aurkeztu behar dira. Eskolan leku bat eskatzeko eskabideak honelakoak izan daitezke:

- Matrikula berritzeko eskabideak (aurreko ikasturtean matrikulatutako haurrak).
- Udalaren Gizarte Zerbitzuek proposatuta egindako izena emateko eskabideak.
- Izena emateko eskabide berriak, epe arruntaren barnean egindakoak, 2020ko irailean eskolatzeko.
- Izena emateko eskabide berriak, 2020-2021 ikasturtean zehar egindakoak.

3.1. Matrikula berritzeko eskabideak.

2018an eta 2019an jaiotako haurrek matrikulatuta dauden eskoletan eska dezakete berriro lekua, edo Udalaren Sareko beste edozein eskolara aldatzeko ere eska dezakete. Horretarako, eskoletako kuoten ordainketa egunean izan behar dute.

Berritzeko eskabideak aurkezteko epea: 2020ko maiatzaren 21etik 27ra (biak barne).

Zehaztutako epean berritzen ez bada matrikula, eskola-plaza galduko da. Hala ere, matrikula berritzeko epea igaro ondoren, 2020-2021 ikasturterako leku bat eskatu nahi bada, izena emateko eskabide berrien prozesu arruntaren barnean edo ikasturtean zehar egin ahal izango da, sartzeko baldintzei eta baremoari jarraiki, betiere.

Eskabideak aurkezteko tokia: haurra 2019-2020 ikasturtean matrikulatuta egon den eskolan bertan jasoko da eskabide-orria, eta hara eramango da beteta.

Jantoki-zerbitzua: lana edota antzeko egoeraren bat dela eta, horren beharra dutela egiaztatzen dutenei emango zaie jantoki-zerbitzua, lehenagotik ere zerbitzu hori zutenei nahiz lehen aldiz eskatzen dutenei.

Eskola-aldaketa: beste eskola batera aldatzeko eskaera egiten bada, eskola horretan lekurik badago bakarrik emango da aukera. Lekuz aldatzeko eskaerak eskuragarri dauden lekuak baino gehiago badira, araudi honetan finkatutako baremoa aplikatuz esleituko dira lekuak.



3.2. Udalaren Gizarte Zerbitzuek proposatuta egindako izena emateko eskabideak.

Zailtasun sozialeko egoeran, zaurgarritasun sozio-ekonomikoko egoeran eta/edo babesgabetasun-arriskuan edo –egoeran dauden 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hezteko eta haur horiei arreta eskaintzeko xedez, 2017ko irailaren 11n onartutako eta 2020ko otsailaren 25ean eguneratutako Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza Zerbitzuaren arteko Lankidetzeta eta Koordinazio Protokoloan ezarritakoaren arabera, hamabost leku gordeko dira ikasturte bakoitzean Gizarte Zerbitzuen arreta jasotzen duten eta babesgabetasun-egoeran dauden familientzat. Gizarte Zerbitzuek euren ustez eskolatu behar diren haurrei dagokien proposamen arrazoitua igorriko dute 2020ko maiatzaren 21etik 27ra bitarteko astean, eta Hezkuntza Zerbitzuak aztertuko du proposamen hori.

Matrikula gauatzeko epea: 2020ko irailaren 1etik 4ra.

Matrikula gauatzeko tokia: eskabide-orria eta matrikulazio-orria lekua esleitu den eskolan bertan beteko dira.

Zehaztutako epea amaitutakoan, lekuak gordetzeko prozedura amaitutzat joko da. Matrikula epe horren barruan egin ez duten familiek matrikulatzeko eskubidea galduko dute. Bete ez diren lekuak Udalaren Haur Eskoletako eskaintza orokorrera igaroko dira.

3.3. Izena emateko eskabide berriak, epe arruntaren barnean egindakoak.

2020ko irailean eskolatzen hasteko asmoz **eskolan izena emateko epe arrunta 2020ko maiatzaren 28tik ekainaren 8ra izango da**, biak barne, 2018an 2019an eta 2020ko maiatzaren 17ra arte (egun hori barne) jaiotako haurrentzat.

2020ko maiatzaren 18tik aurrera (egun hori barne) jaiotako umeen eskabideak behin betiko zerrendak argitaratu ostean kudeatuko dira, urritik aurrera (16 aste bete ondoren) eskolatzen hasteko, beti ere plaza librerik balego.

Eskabideak aurkezteko tokia: toki hauetan aurkez daitezke:

- On-line, Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.



- Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan.
- San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan.
- Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren eskabideak aurkezteko tokia: familiek argibide eta orientabide gehiago izan dezaten, Hezkuntza Zerbitzuaren bulego nagusietan aurkeztuko dira eskabideak (Frai Zacarías Martínez kalea, 3), 08:30etik 14:00etara.

Eskola guztiek hartu ahalko dituzte hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak, gehienez ere, eskolan dauden talde edo unitate adina haur. Eskola jakin baterako dauden taldeak baino eskabide gehiago jasoz gero, araudi honetan finkatutako baremoa aplikatuko da dagokionari beste eskola bat esleitzeko.

Osasun-laguntza behar duten haurren eskabideak: Hezkuntza Zerbitzuak erabakiko du osasun-laguntza behar duten haurrak onartzea posible den ala ez, kontuan hartuta behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izan ditzakeen eskolak.

3.4. Izena emateko eskabide berriak, ikasturtean zehar egindakoak.

Behin ikasturtea 2020ko irailean hasita, hutsik dauden lekuak esleitu dira, araudi honetan jasotako zehaztapenetan oinarrituta. Oro har, ez da hutsik geratutako lekuak betetzera joko 2020-2021 ikasturtearen azken hiruhilekoan.

Hutsik gelditu diren leku horiek eskaintzeko, itzarote-zerrendara joko da; zerrenda bakarra izango da adin-tarte bakoitzeko, eta baremoan oinarrituta eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko da zerrenda hori.

Itzarote-zerrendaren osaera eta ordena. Honela osatuko da zerrenda:

- Epe arruntean aurkeztutako izena emateko eskabideak, lekurik lortu ez zutenak. Baremazioan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira eskaera horiek.
- 2020ko maiatzaren 17az geroztik jaiotako haurren eskabideak. "Epe barruan" egindako eskabidetzat hartuko dira horiek, eragin guztietarako. Baremoan lortutako puntuazioaren arabera



ordenatuko dira, aurreko ataleko eskabideekin batera. Lekua onartuta, 16 aste betetzen dituztenean has daitezke eskolan.

- Epe arruntaz kanpo aurkeztutako izena emateko eskabideak (aurreko puntuan adierazi direnak salbu), baremazioaren ostean, epe arruntaren barruan aurkeztutakoen ondoren ordenatuko dira.
- Lekua lortu ondoren matrikulatu ez zirenen eskabideak edota hutsik ziren lekuetarako eskaintzari uko egin ziotenak baremoaren arabera ordenatuko dira, epe arruntaz kanpo aurkeztutakoekin batera, idatziz eskatu ondoren.

Hutsik dauden lekuak betetzeko prozedura: ikasturtean zehar, puntuazioaren arabera beteko dira hutsik gelditu diren lekuak, prozedura honi jarraituz:

- Hezkuntza Zerbitzua lekua lortu duen familiarekin soilik jarriko da harremanetan.
- Hilabete bakoitzean, 1etik 18ra bitartean deituko zaie familiei, hurrengo hilabetea hastearekin batera ekiteko harrera egiteko eta eskola-bizitzara ohitzeko garaiari. Horretarako, familiei zer hilabetetan deitzen zaien kontuan hartuta, hilabete hori baino lehen aurkeztu diren eskabide guztiak hartuko ditugu aintzat.

Adibidez: izen-ematea urrian egiten bada eta lekua lortzen bada, azaroaren 1etik 18ra bitartean deituko zaio familiari, haurra abenduan has dadin eskolan.

- Haurrak 16 aste betetzen dituen hilabetean eskaintzen bazaio lekua, matrikula ordaindu eta gero (hala badagokio), hilabete horretan has dezake harrera egiteko eta eskola-bizitzara ohitzeko garaia edo hurrengo hilean ere has dezake.

Eskatutako lekuari uko egiten badiote, eskabidea kendu egingo da itxarote-zerrendetatik. Berrito zerrendetan sartu nahi izanez gero, idatziz egin beharko dute eskabidea.

Hutsik dauden lekuak betetzeko prozedurari buruzko egoera espezifikoak: gure lanerako ohiko prozesua horixe izan arren, leku bat lortzeko epeak desberdinak izan daitezke honako kasu hauetan:

- Eskatutako eskolaren okupazioa % 75ekoa edo txikiagoa denean, eta hutsik dauden lekuak matrikulazio-prozesuetan lekua eskatu duten familiek ez dituztela beteko aurreikusten denean.



Kasu horretan, izen-emateko orria zuzen beteta aurkeztu beharko da eskolan hasi baino gutxienez 20 egun lehenago. Dena den, epe hori zabalagoa izan daiteke, epea betetzea ezinezko egiten duten egoerak gertatuz gero.

- Ikasturtean zehar, Gizarte Zerbitzuek eskolarako lekuren bat eskatzen badute, modu berezian jokatu da baita ere, zailtasun sozialeko egoeran, zaugarritasun sozio-ekonomikoko egoeran eta/edo babesgabetasun-arriskuan edo -egoeran dauden 0 eta 3 urte bitarteko haurrak hezteko eta haur horiei arreta eskaintzeko xedez, 2017ko irailaren 11n onartutako eta 2020ko otsailaren 25ean eguneratutako Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Hezkuntza Zerbitzuaren arteko Lankidetzaren eta Koordinazio Protokoloan ezarritakoaren arabera.



4. Izena emateko eta matrikulazioa egiteko epe arrunta.

Hauek izango dira 2020ko irailean eskolan hasteko asmoz izena emateko eta matrikulatzeko prozesu arruntaren epeak.

1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea (2018an, 2019an eta 2020ko maiatzaren 17ra arte, egun hori barne, jaiotako haurrentzat)	2020ko maiatzaren 28tik ekainaren 8ra
2. Behin-behineko zerrenden eta itxarote-zerrenden argitalpena.	2020ko ekainaren 25a
3. Erreklamazioetarako epea.	2020ko ekainaren 25etik 30era
4. Behin betiko zerrendak argitaratzea.	2020ko uztailaren 9a
5. Matrikulazioa gauzatzea.	2020ko irailaren 1etik 4ra

4.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea:

2020ko irailean eskolan hasteko asmoz **izena emateko epe arrunta 2020ko maiatzaren 28tik ekainaren 8ra izango da**, biak barne, 2018an, 2019an eta 2020ko maiatzaren 17ra arte (egun hori barne).

2020ko maiatzaren 18tik aurrera (egun hori barne) jaiotako haurren eskaerak behin betiko zerrendak argitaratu ondoren kudeatuko dira, urritik aurrera eskolatzen hasteko, 16 aste bete ondoren, betiere plaza hutsik balego.

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko tokia:

- On-line: Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, izena emateko azken eguneko 23:59ak arte
- Aurrez aurrekoa:
 - o Gizarte Etxetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan.
 - o San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan.
- Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.



- Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren kasuan, eskabideak eta agiriak Hezkuntza Zerbitzuan aurkeztuko dira, aurrez aurre (Frai Zacarías Martínez kalea, 3).

Kontuan izan beharreko alderdi garrantzitsuak:

- Ume bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztu behar da.
- On-line izapidetzeko, Vitoria-Gasteizko Udalak egoitza elektronikoan ezarritako lekuan beteko da eskaera-orria.
- Izen-ematea aurrez aurre izapidetzeko, leku hauetan jaso ahal izango dira eskabide-orriak: Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan eta San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan. Halaber, Vitoria-Gasteizko Udalaren hezkuntzako webgunean ere eskuratu ahal izango dira: www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza
- Eskabide-orrian, lehentasun-hurrenkeraren arabera, plaza lortu nahi den 5 eskola adierazi ahal izango dira gehienez. Lehenengo eskatutako eskolan lekurik esleitzea ezinezkoa bada, eskabide-orrian adierazitako beste lau eskolak hartuko dira kontuan, zehaztutako ordenaren arabera.
- Araudi honetan ezarritako baremoa erabiliz lortzen den puntuazioaren arabera ordenatuko dira eskabideak. Hurrenkera horri jarraituz, eskatu diren eskoletatik leku hutsa dagoen lehenengoan emango zaio lekua.
- Eskabideak aurkezteko epearen barnean aurkeztutako eskaerak eta dokumentazioa soilik hartuko da aintzat (2020ko maiatzaren 28tik ekainaren 8ra).

4.2. Behin-behineko zerrendak eta itxarote-zerrendak: 2020ko ekainaren 25ean argitaratuko dira.

Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Udalaren Haur Eskoletan, Haureskolak Partzuergoko Eskoletan eta Udalaren hezkuntzako webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza) argitaratuko dira onartutako haurren behin-behineko zerrendak eta behin-behineko itxarote-zerrendak.

Behin-behineko zerrendak orden alfabetikoan aurkeztuko dira, eta, zerrenda horietan, haurra zer eskolatan onartu den zehaztuko da; itxarote-zerrendan badago, zer egoeratan dagoen azalduko zaio. Aurreko paragrafoan adierazitako lekuetan kontsultatu ahal izango da, banaka, baremoa aplikatu ondoren lortutako puntuazioa.

4.3. Erreklamazioetarako epea: 2020ko ekainaren 25etik 30era.

Erreklamazioak idatziz egingo dira, Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio



kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

Epe horren barnean, ez da onartuko beste agiririk hasierako eskabideari erantsitakoez gain. Horregatik, hautatze-prozesuan hutsegite edo akatsen bat izan dela egiaztatzen bada soilik onartuko dira erreklamazioak.

4.4. Behin betiko zerrendak: 2020ko uztailaren 9an argitaratuko dira.

Adierazitako lekuetan argitaratuko dira onartuen behin betiko zerrendak eta itzarote-zerrendak, izandako erreklamazioak ebatzi ondoren.

4.5. Matrikula gauzatzeko epea: 2020ko irailaren 1etik 4ra.

2019an eta 2020an jaiotako haurren matrikula ordaintzeko orduan, "ordainketa-agindua" eskuratu behar da Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan edo Udalaren hezkuntzako webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/hezkuntza). Ordainketa-agindu horren bidez, dagokion matrikula ordaindu beharko da, bulego horietan bertan, webgunearen bitartez edo finantza-erakunde laguntzaileetan. 2018an jaiotako haurrek ez dute matrikula ordaindu behar, eskola-sistemarekiko antzekotasunagatik. Era berean, 2018an, 2019an eta 2020an jaiotako haurrak, 18.000,00 euro baino gutxiagoko urteko familia-errenta duten familietakoak matrikula ordaintzetik salbuetsita daude.

Ondoren, familia guztiek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte eskolan:

- Matrikularen ordainagiria (2019an eta 2020an jaiotako haurren kasuan, hala badagokio).
- Haurrak hartutako txertoen liburuxkaren fotokopia eguneratua.
- Haurraren bi argazki, agiri-tamainakoak.
- Haurraren osasun-txartelaren fotokopia.
- Medikuaren txostena, haurrak osasun arazoren bat, alergiak edo elikadura-intolerantziak dituenean.
- Haurraren eskolatzearan eragina izan dezaketen bestelako alderdiei buruzko dokumentazioa, banaketa bat edo dibortzio bat dagoenean edo izatezko bikotearen bizikidetzaren egoera amaitzen denean.



Baja emango zaie ezarritako epean egin ez diren matrikulei, bai eta eskola batean emandako lekuari uko egiten bazaio ere. Kasu horietan, eskolan leku bat lortzeko, berriro egin beharko da eskaera, baina eskaera hori “epetik kanpokotzat” joko da ondorio guztietarako.

4.6. Hutsik dauden lekuen eta itzarote-zerrenden kudeaketa epe arruntaren barnean.

Matrikulazio-prozesua amaitzen denean lekuren batzuk hutsik geratu badira, matrikulazio-prozesu arruntean eskolan lekurik lortu ez duten eta itzarote-zerrendan dauden haurren familiei eskainiko zaizkie leku horiek. Puntuazio-ordena zehatzari jarraituz eta hautatutako eskolaren edo eskolen arabera egingo da eskaintza.

Prozesua amaitzen denean, titulartasun publikoa duten udalerriko haur eskola guztietan hutsik geratu diren lekuen berri emango zaie oraindik itzarote-zerrendan dauden haurren familiei, eta, eskabidean adierazitako eskolan ez bada ere, beste batean lekua izateko aukera emango zaie.

Eskatutako eskolan edo eskoletan ez, baizik eta beste batean lekua eskaini denean, leku hori ez onartzeak ez du inolako ondoriorik ekarriko, eta, beraz, haur horiek itzarote-zerrendan jarraituko dute eta lortutako puntuazioari eutsiko diote, eskatutako eskolan edo eskoletan leku bat sortzeko zain.



5. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Ondoren, familia guztiek aurkeztu behar duten oinarrizko dokumentazioa, familia-unitatearen dokumentazioa eta beste familia-inguruabar batzuk zehazten dira. Baita baremazioan balioesteko beharrezkoak diren agiriak ere.

1) **Oinarrizko dokumentazioa.** Familia guztiek honako hauek aurkeztu behar dituzte:

- Eskabidea, eredu ofizialari dagokiona.
- Familia-liburu osoaren fotokopia (oharrak dituzten orrialde guztiak).

Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko ditu haurren eta familia-unitatearen erroldatze-datuak.

2) **Familia-unitatearen dokumentazioa eta beste familia-inguruabar batzuk.**

– **Guraso bakarreko familiak:**

- ✓ Eskatzaileak ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik ez duela egiaztatuko du familia-liburuaren bidez.
- ✓ Zaintza bakarra egiaztatzen badu, ebazpen judizial irmoaren, behin-behineko neurrien autoaren edo epaitegian berretsitako hitzarmen arauemailearen kopia aurkeztu beharko du.

– **Bi gurasoko familiak:**

- ✓ Familia-liburuaren edo izatezko bikotearen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da bi gurasoko familia dela.

– **Berriz eraturako familiak:**

- ✓ Amatzat edo aitatzat hartuko da baita ere zaintza duen aitaren edo amaren legezko bikotekidea. Horretarako, banantze-epaiaren bidez eta bikotekide berriaren legezko egoera jasoko duen ziurtagiri ofizialaren bidez justifikatu beharko da.

– **Legezko tutoreak:**

- ✓ Legezko tutorea dela egiaztatzeko, epaiaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztu



beharko da.

– **Seme-alaba biologikoak, adoptatutakoak, adopzioaren aurreko eta familia-harrerako seme-alabak, eta berreratutako familienak:**

- ✓ Familia-unitatea osatzen duen seme-alaba biologiko edo adoptatu bakoitza existitzen dela ziurtatzeko, familia-liburuko orrien kopia aurkeztu beharko da. Anai-arreben izaera familia-liburuaren kopiaren bidez ere ziurtatuko da.
- ✓ Adoptatzeko prozesuan dauden haurren kasuan, familia-liburua matrikula egiteko unean aurkeztuko da, ez eskabidearen epearen barnean. Dena den, familiaren ardura da, adopzioarako izapideak gauzatu ondoren, horren berri ematea eta familia-liburua eramatea.
- ✓ Anai-arrebatzat hartuko dira, halaber, familia-unitate berean legez eraturako tutoretzan edo familia-harrera iraunkorrean edo adopzioaren aurreko familia-harreran dauden haurrak. Horretarako, dagokion erakundeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- ✓ Halaber, anai-arrebatzat hartuko dira gaur egun eskola-plaza eskatzen zaion haurren amaren edo aitaren legezko bikotekidea den pertsonaren seme-alabak, betiere haurren etxebizitza berean bizi badira. Egoera hori dagokion errolda-ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da.

3) Baremazioan balioesteko aurkeztu beharreko beste agiri batzuk. Honako agiri hauek aurkeztu ahal izango dituzte familiek:

a) Familia-unitatearen urteko errenta egiaztatzen duen dokumentazioa.

Onespen-prozesuan dagokion puntuazioa lortu ahal izateko, familia-unitatearen pertsona guztien egoera ekonomikoa egiaztatu behar du familiek.

- Familiek Araban aurkezten badute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena, baimena eman ahal izango diote Hezkuntza Zerbitzuari beren datu fiskalei buruzko informazioa ofizioz eska dezan. Horretarako, eskabide-inprimakian baimendu beharko dute. Bestela, zerga horren aitortpena egiteko obligazioa duten familia-unitateko pertsona guztien 2018. urteko aitortpenaren kopia aurkeztu beharko da.



- Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko bateko edo Estatuko Zerga Agentziako zergadunak badira, edo 2018an Espainiako Estatutik kanpo ordaindu bazituzten zergak, Hezkuntza Zerbitzuak ezin izango ditu pertsona horien datu fiskalak kontsultatu. Horregatik, zerga horren aitortpena egiteko obligazioa duten familia-unitateko pertsona guztien errentaren gaineko zergaren 2018. urteko aitortpenaren kopia aurkeztu beharko da.
- Errenta-aitortpenik egin ez bada, Foru-ogasunen batek, Estatuko Zerga Agentziak edo zergak ordaintzen ari den herrialdeko ogasun edo administrazio eskudunak –kasuan kasu– emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, aurkeztu ez izana bermatzen duena, eta/edo familia-unitateko kide guztiek 2018. urtean eskuratutako diru-sarrerak justifikatzeko balio duten bestelako agiri ofizialen kopiak, hala nola:
 - ✓ Etekin garbien ziurtagiria, Foru-ogasunak, Estatuko Zerga Agentziak edo zergak ordaintzen ari den herrialdeko ogasun edo administrazio eskudunak emana.
 - ✓ 10 T agiria.
 - ✓ Pentsioaren ziurtagiria.
 - ✓ Langabeziaren ziurtagiria, Lanbidek emandakoa, zer diru-laguntza jaso zen zehaztuta.
 - ✓ BEZaren urteko aitortpena.
 - ✓ Familiaren 2018. urteko egoera ekonomikoa egiaztatzen duen beste edozein agiri.
- Ezkontzak desegiten badira, ezkontideak banantzen edo dibortziazten badira, edo izatezko bikoteen bizikidetzatza eteten bada, dagokion baremoa aplikatzeko, haurraren zaintza eta jagoletza duenaren errenta baino ez da hartuko kontuan, behin-behineko neurrien autoaren, ebazpen judizial irmoaren edo epaitegian berretsitako hitzarmen arautzailearen arabera, gehi haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen diru-sarrerak, halakorik balego.
- Berdin jokatu da tutoretza judiziala, familia-harrera edo antzeko babes-neurriak aplikatu behar badira eta adingabeko ikaslearen zaintza haurraren guraso ez diren pertsona fisikoen esku badago.
- Ikaslearen zaintza herri-administrazioaren baten esku balego, puntuazio handiena emango zaio errenta-egoerari.

Haurra eskolan eskolatuta dagoen bitartean (ikasturte bat, bi edo hiru), eskolatzearen hasieran aurkeztutako familia-unitatearen urteko errenta justifikatzeko dokumentazioa bakarrik hartuko da



kontuan.

Haurrak eskolan baja hartzen duenean eta ondoren familiak beste plaza bat eskatzen duenean, izena emateko ohiko prozedurari jarraituko zaio, inskripzio-orria berriz entregatuko da eta 4 hilabete igaro beharko dira aurkeztutako justifikazio-dokumentazio berria kontuan hartzeko.

b) Bizilekua edo lantokia egiaztatzeko agiriak.

- Ofizioz egiaztatuko da Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldatuta dagoen. Umea ama, aita edo legezko tutoreekin bizi den tokia hartuko da familiaren helbidetzat.
- Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden haurren eta, besteren kontura arituta, udalerrri horretan lan egiten duten gurasoen edo legezko tutoreen kasuan, amak, aitak edo legezko tutoreak lan egiten duten enpresako titularrak edo langileen arduradunak egindako egiaztagiria aurkeztuko da, eta egoera hori adieraziko da egiaztagirian.
- Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden haurren eta, norberaren kontura arituta, udalerrri horretan lan egiten duten gurasoen edo legezko tutoreen kasuan, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta egoeran daudela ziurtatzen duen agiriaren bidez egiaztatuko da. Indarrean dagoen araudiari jarraiki, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta egoeran egon beharrik ez badago, Vitoria-Gasteizko Udalak emandako irekitze-baimenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

c) Eskabidea egin den eskolan lan egiten duten senideak edo eskola horretan anai-arrebak matrikulatuta izatearen egiaztagiria.

Anai-arrebak eskoletan matrikulatuta dauden kasuan, atal honetan puntuak lortzeko, egoera horrek 2019-2020 ikasturtean gertatu behar du da, eta 2020-2021 ikasturtean jarraitu beharko du.

Kontuan hartuko da, baita ere, amak, aitak edo legezko tutoreak eskatutako eskola horretan lan egiten duen, eskabideak aurkezteko epea zabalik dagoen unean.

Familiak eskabidean adieraziko du, eta ez da agiririk aurkeztu behar, ofizioz egiaztatuko baita.

d) Familia ugariaren kasuan aurkeztu beharreko agiriak.

Familia ugariaren agiri edo txartel eguneratuaren fotokopia.



e) Haurren edo senitartekoen aniztasun funtzionala egiaztatzeko agiriak.

Desgaitasun-egoerak, % 33koak edo handiagoak, baremazioan balioetsiko dira. Horretarako, dagokion erakundeak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Honako pertsona hauen desgaitasuna balioetsiko da baremazioan:

- Eskaera egiten duen haurrena.
- Eskaera egiten duen haurren gurasoena edo legezko tutoreena eta anai-arrebena.

Berriz eraturako familien kasuan, legezko bikotekidea denean, amatzat, aitatzat edo tutoretzat hartuko da eskaera egiten duen haurren amaren edo aitaren bikotekidea dena une horretan.

Modu berean, berriz eraturako familietan, eskolako lekua eskatzen den haurren amaren edo aitaren legezko bikotekidearen seme-alabak aurrekoaren senidetzat hartuko dira, haurrarekin batera etxebizitza berean bizi badira, betiere.

Harrera-kasuetan, senidetzat hartuko dira familian harreraren hartutako haurrak edo adopzioaren aurreko egoeran daudenak.

f) Eskaera egiten duen haurren gurasoen edo legezko tutoreen lan-egoera egiaztatzeko agiriak.

Atal honetan puntuak lortzeko, eskaera egiten den unean duten lan-egoera hartuko da aintzat.

Lan-egoera aktiboan daudela ulertuko da, lanerako ezintasun iragankor egoeran daudenean edota amatasunagatiko edota aitatasunagatiko baimen-egoeran daudenean nahiz adin txikikoak zaintzeko baimena eskatu dutenean.

Honela egiaztatu ahal izango da lan-egoera:

- Horrela baimenduz gero, Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz eskuratuko ditu Gizarte Segurtasunean erregimen orokorrean alta emanda dauden pertsona interesdunen egungo lan-egoerari buruzko datuak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean. Horretarako, eskabide-inprimakian baimendu beharko dute.



- Baimena ematen ez den kasuan edo ofizioz egiaztatu ezin den kasuan, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:
 - o Gizarte Segurantzaren izen emanda dauden pertsonen lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko dute, eskaera egiten den unean lan-egoera aktiboa dutela egiaztatzeko.
 - o Gizarte Segurantzaren izen emanda ez dauden pertsonen, berriz, beste lan-erregimen edo mutualitate batean izen emanda daudela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, eskaera egiten den unean lan-egoera aktiboa dutela egiaztatzeko.
- Langabezia-egoeran badaude, Lan Eskararen Alta eta Berritze Dokumentu eguneratuaren (LEABD) fotokopia aurkeztu beharko da.
- Adingabeak zaintzeko lan-utzialdiaren kasuan, enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta lanpostura noiz itzuliko den jaso behar du ziurtagiri horrek; egoera hauek ere lan-egoera aktibotzat joko dira kasu hauetan:
 - o Izena emateko ohiko epearen barnean aurkeztutako eskabideen kasuan, 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen itzuli behar badu lanera.
 - o 2020-2021 ikasturtean zehar aurkeztutako eskabideen kasuan, eskolatzea hasten den hilabete berean edo hurrengoan itzuli behar badu lanera.
- Aldi baterako gabetze egoera berezia onartu zaien pertsonen, behar bezala justifikatzen badute (Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri eguneratuarekin), langabezia daudenen izaera bera izango dute.

Jatorrizkoekin erkatuko ditu aurkeztutako agirien kopiak horiek jasotzeaz arduratzen den pertsonak, benetakoak direla egiaztatzeko.

Atalen batean ez badira eskatutako ziurtagiriak aurkezten, ez da batere punturik emango onartzeko baremoko koadroari dagokion atal horretan.

Eskabidean adierazitako datuak edo erantsitako agiriak bat ez datozela edo kontraesanen bat dagoela hautematen badu Hezkuntza Zerbitzuak, penalizazioa aplikatu ahal izango du pertsona horrek lortutako puntu kopuruan, baita, lekua emana badio, hura kendu ere, dagokion entzunaldia eskaini ondoren.



6. Onartzeko baremoa.

Eskabideen baremazioak honako irizpide hauek beteko ditu:

a) Familia-unitatearen urteko errenta:

10.302,60 €-ko diru-sarrerak edo txikiagoak	1,5 puntu
10.302,61 €-tik 30.907,80 €-ra arteko diru-sarrerak.....	puntu 1
30.907,81 €-tik 51.513,00 €-ra arteko diru-sarrerak.....	0,5 puntu
Horrez gain, aurreko kasuetan 0,25 puntu gehituko dira eskaera egiten duen haurra ez den adin txikiko seme-alaba bakoitzarengatik.	
Atal honetako gehieneko puntuazioa	3 puntu

Adierazitako puntuazioa lortzeko eskubidea izateko diru-sarrera konputagarriak familia-unitateko kide guztien 2018ko zerga-ekitaldiari dagozkionak izango dira.

b) Helbidea edo lantokia (kontzeptu ez metagarriak):

Haurra Vitoria-Gasteizen erroldatuta badago eta haren helbidea bat badator gutxienez amaren, aitaren edota legezko tutoreetako baten helbidearekin	5 puntu
Haurra Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez badago baina amak, aitak edota legezko tutoreetako batek Vitoria-Gasteizko udalerrian lan egiten badu (amak, aitak edota legezko tutoreak eskabidean adierazitako eskolan lan egiten duenean emandako puntuazioa ez da bateragarria honako puntuazio honekin)	2 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa	5 puntu

c) Eskabidea egin den eskolan lan egiten duten edo matrikulatuta dauden senideak izatea (kontzeptu hauek ez dira metagarriak):

Anai-arreba bat edo gehiago dago matrikulatuta eskabidean adierazitako eskolan 2019-2020 ikasturtean, eta berritu egin dute matrikulazioa 2020/2021 ikasturterako	9 puntu
Guraso edo legezko tutoreetako batek edo biek lan egiten dute eskabidea egin den eskolan	7 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa	9 puntu



d) Familia ugariak:

Kategoria orokorreko familia ugariak izateagatik	puntu 1
Kategoria bereziko familia ugariak izateagatik	1,5 puntu
Atal honetako gehieneko puntuazioa	1,5 puntu

e) Aniztasun funtzionala:

Eskabidea egiten duen haurrak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izateagatik	2 puntu
Guraso edo legezko tutore batek zein biek nahiz anai-arrebaren batek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa izateagatik	puntu 1
Atal honetako gehieneko puntuazioa	2 puntu

f) Gurasoen edo legezko tutoreen lan-egoera:

Bi guraso dituzten familien kasuan, guraso biek edo legezko tutore biek lan-merkatuan lan egiten dutenean	4 puntu
Guraso bakarreko familien kasuan, amak, aitak edo legezko tutoreak lan-merkatuan lan egiten duenean.	4 puntu
Bi guraso dituzten familien kasuan, gurasoetako batek edo legezko tutoretako batek lan-merkatuan lan egiten duenean eta bestea langabezia-egoeran dagoenean edo aldi baterako gabetze egoera berezia onartu zaionean	puntu 1
Bi guraso dituzten familien kasuan, guraso biak edo legezko tutoreak langabezia-egoeran daudenean edo horietariko bat langabezia-egoeran dagoenean eta besteari aldi baterako gabetze egoera berezia onartu zaionean	puntu 1
Guraso bakarreko familien kasuan, ama, aita edo legezko tutorea langabezia dagoenean edo aldi baterako gabetze egoera berezia onartu zaionean	puntu 1
Atal honetako gehieneko puntuazioa	4 puntu

Berdinketa hausteko irizpideak:

Berdinketarik gertatuz gero, aurreko irizpideen arabera puntuazioaren hurrenkerari erreparatuko zaio. Ondoko irizpideei eta ordenari jarraiki egingo da sailkapena:



1. “Eskabidea egin den eskolan lan egiten duten edo matrikulatuta dauden senideak izatea” atalean puntu gehien lortu dituzten eskabideak (c atala).
2. “Helbidea edo lantokia” atalean puntu gehien lortu dituzten eskabideak (b atala).
3. “Aniztasun funtzionala” atalean puntu gehien lortu dituzten eskabideak (e atala).
4. “Familia ugariak” atalean puntu gehien lortu dituzten eskabideak (d atala).
5. “Familia-unitatearen urteko errentak” atalean puntu gehien lortu dituzten eskabideak (a atala).

Berdinketak jarraituz gero, ordena alfabetikoaren arabera hartuko da erabakia, Eusko Jaurlaritzak urtero modu aleatorioan xede horretarako erabakitzen duen letratik hasita.

Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan baremazioan:

- Eskabidea egiteko eta agiriak aurkezteko epearen barneak egiaztatutako egoerak baino ez dira hartuko aintzat.
- Errenta eta lan-egoera ataletan puntuak lortzeko aurkezten diren egoerek koherenteak izan behar dute. Bi gurasoen edo legezko tutoreen diru-sarrerak egiaztatu beharko dira, guraso edo tutoreen lan-egoeraren atalean punturik eskuratu ahal izateko. Kontraesanik ageri bada, edo zehaztasunen bat falta, ez da punturik emango atal horietan.
- Aurreko baremoa erabiliz eskabide bakoitzari ematen zaion puntuazioak 2020-2021 ikasturterako lekuak banatzeko prozesu osorako balioko du. Eskabideak puntuazioaren arabera hurrenkeran antolatuko dira, adinetan sailkatuta. Eskabide bakoitzak zerrenda bakarrean duen ordenaren eta adinaren eta eskatutako eskolaren arabera banatuko dira lekuak.
- Aurreko irizpideei jarraiki barematuko dira epe kanpo aurkeztutako eskabideak, epe barruan egin zutenen itzarote-zerrenda agortu ondoren.
- 2020ko maiatzaren 18tik (hori barne) aurrera jaiotako haurren familiek haurra jaiotze ondoren egin ahal izango dute eskaera. Eskabide horiek epe barrukotzat joko dira. Itzarote-zerrendan jarriko dira, gainerako eskabideekin batera, baremoan lortutako puntuazioaren arabera dagokien ordenan. Lekua onartu ondoren, 16 aste betetzen dituzten unetik has daitezke eskolan, 2020ko urritik aurrera.



7. Eskola-lekua gordetzea eta hutsik geratu diren lekuak kudeatzea ikasturtean zehar.

7.1. Eskola-lekua gordetzea.

Familiak lekua gordetzeko eska dezakete haurra eskolara hilabete batez edo bi hilabetez ez dela joango aurrean daitekeenean, eskaria ondo arrazoituta eta Hezkuntza Zerbitzuari idatziz jakinarazita betiere. Horrela, plaza ez litzateke hustzat joko epe horretan, eta gordetzen diren zerbitzu guztiei dagozkien tarifen % 50 ordaindu beharko litzateke. Horretarako, familiak idatziz egin behar dute eskaera, Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan, huts-egitea hasten den egunetik hamar egun balioduneko epean. Horrez gain, eskolako Zuzendaritza ere jakinaren gainean jarriko dute.

Neurri bera aplikatuko da mediku arrazoiak edo behar bezala justifikatutako arrazoi batzuk direla eta 08:00etatik 16:00etara bitartean matrikulatuta dauden familiak 13:00etatik 16:00etara arteko tartean – hau da, jantoki-zerbitzua eskaintzen den ordutegian- erreserba egin beharra dutenean. Horrelakoetan, erreserba aldian 08:00etatik 13:00etara arteko ordutegiari dagokion kuota ordainduko dute, eta 13:00etatik 16:00etara arteko tarteari –jantoki-zerbitzua barne- dagokion kuotaren % 50.

Aplikatuko zaion kuota ez da huts egiten duen egunekiko proportzionala izango, baizik eta hileroko izaera izango du. Horregatik, dagokion hileko kuota % 50 murriztuko da, hilabete batean edo bitan, kasuaren arabera.

Eskatutako epea igaro ondoren eskolara edo jantoki-zerbitzura itzultzen ez bada, Hezkuntza Zerbitzuak behin betiko baja eman ahal izango dio haurrari ofizioz, egoera aztertu ondoren.

7.2. Familiak eskatutako bajak.

Familiak, beren borondatez, seme-alabak eskolatik atera ahal izango dituzte ikasturtean zehar. Horretarako, idatziz egin behar dute eskabidea, Gizarte Etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, San Antonio kaleko 10. zenbakiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, Udalaren egoitza elektronikoaren bidez edo herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan. Eskabide idatzia egiteaz gain, haurra



matrikulatuta dagoen eskolako Zuzendaritzari jakinaraziko diote. Fakturazioari dagokionez, baja-eskaera egiten den hurrengo hilabetetik aurrera izango du eragina.

7.3. Hezkuntza Zerbitzuak ofizioz baja ematea.

Hezkuntza Zerbitzuak haur baten matrikulari baja emango dio, ofizioz, bi hilabetez ordainketa egiten ez bada.

Horretaz gain, eskolan edo jantoki-zerbitzuan baja eman ahal izango du, ofizioz, honako kasu hauetan:

- Bai ikasturtearen hasieran, bai ikasturtean zehar, bost egun balioduneko epean matrikulatutako haur bat eskolara joaten ez bada, familiak inguruabar hori jakinarazi edo justifikatu gabe.
- Behin ikasturtea hasitakoan, haurra elkarren segidako hamar egun baliodunetan ez bada eskolara joan, eta familiak hori jakinarazten edo justifikatzen ez badu.
- Eskolan edo jantoki-zerbitzuan plaza erreserbatzea eskatu bada, eta eskatutako epea igaro bada haurra eskolara edo jantoki-zerbitzura itzuli gabe.
- Jantoki-zerbitzua erabili ez denean segidako hamar egun balioduneko epean, eta familiak horren berri eman ez duenean edo jantoki-zerbitzua ez erabiltzeko arrazoiak eman ez dituzten.
- Familiak edo legezko tutoreek ez badute ematen eskolan haurrak jasotzeko baimena duen pertsona edo pertsonak egiaztatzeko behar den dokumentazioa.
- Familiak eskolan duen portaera desegokia bada Udalaren Haur Eskolen Erabilera-araudiari (matrikula egitean entregatuko dena) edo eskolaren antolaketa eta funtzionamendu orokorrari dagokienez.

Eskolan edo jantoki-zerbitzuan ofizioz baja ematen denean, Hezkuntza Zerbitzuak haurrari baja eman diola jakinaraziko dio familiari. Jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hiru egun igarotakoan familiaren jakinarazpenik jaso ez bada, hutsik gelditu den lekua esleituko da. Familiari erabakiaren berri ematea ezinezkoa bada, hutsik dagoen lekua esleituko da baita ere.



8. 2020-2021 ikasturterako tarifak

8.1. Zerbitzuaren prezioa.

Vitoria-Gasteizko Udaltzaren 2019ko abenduaren 20an behin betiko izaeraz onetsitako ordenantza fiskalean zehaztu ziren 2020-2021 ikasturterako Udaltzaren Haur Eskoletako tarifak (2019ko abenduaren 27ko ALHAO). Ondoren, eskaintzen diren zerbitzuen kuotak zehaztu dira, matrikulatutako haurren araberakoak.

a) Matrikula ordaintzeko kuota:

2019an eta 2020an jaiotako haurren matrikula ordaintzeko kuota 84,00 eurokoa izango da, eta alde zuzenetik kobratuko da, lekua onartzen den unean. 2018an jaiotako haurrei ez zaie matrikula-kuotarik kobratuko, eskola-sistemarekiko antzekotasunagatik. Urteko familia-errenta 18.000 euro baino txikiagoa duten familietako haurrek ere ez dute matrikula ordainduko.

b) Bertaratzeagatik eta jangela eta siestagatik kuota:

Bertaratze-zerbitzua 08:00etatik 13:00etara izango da. Bestalde, aurrekoari jangela eta siesta gehituta, 08:00etatik 16:00etara eskainiko da zerbitzua.

Hauek dira 2020-2021 ikasturtean Udaltzaren Haur Eskoletara joateagatik eta jantoki-zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak:

1. 1 BERTARATZEA: 08:00etatik 13:00etara.

2018an jaiotako haurrek 0,00 euro hilero ume bakoitzeko (eskola-aldietarako tarifa).

2. 2 BERTARATZEA: 08:00etatik 16:00etara, jantokia eta siesta barne.

2018an jaiotako haurrek 84,00 euro hilero ume bakoitzeko (eskola-aldietarako tarifa).

3. 3 BERTARATZEA: 08:00etatik 13:00etara.

2019an eta 2020an jaiotako haurrek 168,20 euro hilero ume bakoitzeko.

4. 4 BERTARATZEA: 08:00etatik 16:00etara, jangela eta siesta barne.

2019an jaiotako haurrek 252,20 euro hilero ume bakoitzeko.



5. 5 BERTARATZEA: 8:00etatik 16:00etara.

2020an jaiotako haurrak 218,60 euro hilero ume bakoitzeko.

2018an, 2019an eta 2020an jaiotako haurrak, zaugarritasun sozioekonomikoan daude familietakoak, dagokien kuota –harrera egiteko eta eskola-bizitzara ohitzeko garaikoa barne- ordaintzetik salbuetsita geratuko dira –Udalaren Haur Eskolak zabaltzen diren aldi osorako- Udalaren Gizarte Zerbitzuek horretarako proposamen arrazoitua egin badute, hautatzen duten ordutegia edozein izanik ere.

18.000,00 eurotik beherako urteko familia-errenta duten familietako haurrak, 2018, 2019 edo 2020an jaiotakoak, dagokien kuota -harrera egiteko eta eskola-bizitzara ohitzeko garaikoa barne- ordaintzetik salbuetsita geratuko dira –Udalaren Haur Eskolak zabaltzen diren aldi osorako- eta hautatzen duten ordutegia edozein izanik ere. Neurri horretatik kanpo geldituko da 2018an eta 2019an jaiotako haurrentzako jantoki-zerbitzua, 08:00etatik 16:00etara arteko ordutegia aukeratu badute; kasu horretan, 33,60 euro ordainduko dira jantoki-zerbitzuagatik, eta bertaratzea doakoa izango da ordutegi horretan.

8.2. Aplikazio-arauak.

- 1) Ordainketa guztiak banketxearen bidez helbideratuko dira.
- 2) Haurra eskolan hasten den lehen hilabeteko kuota, harrera egiteko eta eskola-bizitzara ohitzeko garaiaren hilabetea izango dena, aldeztu aurretik kobratuko da, lekua onartzen den unean, eta 84,00 eurokoa izango da. Ordainketa horretatik salbuetsita daude 2018an jaiotako haurrak eta urtean 18.000,00 eurotik beherako familia-errenta duten familietako haurrak. Gainera, hilabetea amaitzean, honako hau kobratuko da:
 - 2 Bertaratzea edo 4 Bertaratzea duten haurrei: 42,00 euro.
 - Urtean 18.000 eurotik beherako errenta duten eta 2 Bertaratzea edo 4 Bertaratzea duten familietako haurrei: 33,60 euro.

Haurrak eskolan hasten diren lehen hilabeteko kuotari dagokionez –aldeztu aurretik kobratzen da, matrikula egitean–, inguruabarren batengatik familiak erabakitzen badu azkenik lekua ez baliatzea eta eskola-jarduera hasi baino lehenago jakinarazten badu, % 85 itzuliko zaio, bankuko kontuaren bitartez, eta gainerako % 15, berriz, kudeaketa-gastu gisa atxikiko da. Inguruabar hori ez bada eskola-jarduera hasi baino lehenago jakinarazten, ez da kuota itzuliko, eta ordaindutako kopurua galdu egingo da.



- 3) Gainerako hilabeteetan, hala dagokionean, hilabetea bukatzean kobratuko da dagokion bertaratze-kuota (hilabete bati dagokiona), edozein direlarik ere haurra eskolara joaten hasten den eguna, bertan egiten duen egonaldia, eskola irekita dagoen egunen kopurua edo funtzionamendu mota.
- 4) Eskolarik ez dagoen aldietan, Eguberrietan eta Pazko astean, bertaratze-tarifa bereziak ezarriko dira 2018. urtean jaiotako haurrentzat (hala dagokionean): egun kopuruaren arabera zati proportzionala, 3 Bertaratze-tarifa oinarritzat hartuta. Era berean, udako aldian ere, tarifa bereziak izango dira; 3 eta 4 Bertaratze-tarifei egokituko zaizkie, eskatutako ordutegi motaren arabera.
- 5) Hilabete bat edo bi ematen badu haurrak, pisuzko arrazoiak direla medio, eskolara joan gabe –eta hamar egun balioduneko epean Udalaren Hezkuntza Zerbitzuari horren berri idatziz azaltzen bazaio-, dena delako zerbitzuaren kuota ehuneko 50 murriztuko da. Neurri bera aplikatuko da mediku arrazoiak edo behar bezala justifikatutako arrazoi batzuk direla eta 08:00etatik 16:00etara matrikulatuta dauden familiek 13:00etatik 16:00etara arteko tartean –hau da, jantoki-zerbitzua eskaintzen den ordutegian- egin beharra dutenean. Horrelakoetan, erreserba aldian 08:00etatik 13:00etara arteko ordutegiari dagokion kuota ordainduko dute, eta 13:00etatik 16:00etara arteko tarteari –jantoki-zerbitzua barne- dagokion kuotaren % 50.

Aplikatu den kuota ez da proportzionala izango, absentzia-egunen arabera, baizik eta hileko ordainketaren izaera izango du. Horregatik, % 50eko murrizketa aplikatuko zaio hileko kuotari, hilabete batean edo bitan, kasuan kasu.

- 6) Bi hilabetez kuota ordaintzen egiten ez bada, eskolan baja emango zaio automatikoki haurrari.
- 7) Prezio publiko horiek adierazitako epeetan ordaintzen ez badira, premia bidezko prozedurari ekingo zaio, zordunaren ondarearen kontra, eta “premia bidezko gehikuntza” kontzeptuagatik % 20 erantsiko zaio.
- 8) Bertaratze-tarifak kasuan kasu finkatuko dira, familiek egindako eskabideak aintzat hartuta.
- 9) Hainbat seme-alaba dituzten familien kasuan, hilabeteko tarifak ehuneko hauen arabera murriztuko dira:
 - a) Eskolan lekua eskatzen duen haurrak bi anai-arreba baditu, dagokion kuotaren % 25eko murrizketa.
 - b) Hiru anai-arreba baditu, dagokion kuotaren % 33ko murrizketa.



- c) Lau anai-arreba baditu, dagokion kuotaren % 44ko murrizketa.
- d) Bost anai-arreba edo gehiago baditu, dagokion zati proportzionala murriztuko da.

10) Zenbait ume batera erditutako, adoptatutako edo behin betiko harreran edo adopzioaren aurrekoan haurrak hartutako familien kasuan, hileko kuota bakarra ordainduko da, baita Udalaren Haur Eskoletan bi seme-alaba edo gehiago matrikulatuta dituzten familien kasuan, bikiak, hirukiak eta abar ez izan arren. Neurri horretatik salbuetsita egongo da 2018 eta 2019an jaiotako haurrentzako jantoki-zerbitzua, 08:00etatik 16:00etara arteko ordutegia hautatzen delarik; 33,60 euro ordaindu beharko dira jantoki-zerbitzuagatik, eta asistentzia doakoa izango da ordutegi horretan.

Matrikulatutako seme edo alaba bakoitzarengatik ordaindu beharreko kuotak ezberdinak badira, aukeratutako ordutegiak eta haien adinak direla kausa, familiak kuotarik handiena ordainduko du, eta bigarren matrikula eta gainerakoak doakoak izango dira.

9. atalean aurreikusitako kuota-murrizketa aplikatzerakoan, biki, hiruki eta antzeko multzoetako kide ez diren umeak baino ez dira joko ahizpa/arrebatzat edo neba/anaiatzat.

- 11) Interesdunarentzat onuragarrien den irizpidea aplikatuko da aurreko puntuetan planteatzen daitezkeen kasuetan (9. eta 10. puntuak).
- 12) Asistentzia-zerbitzua noiz edo noiz 16ak arte baliatzen dutenek tarifari ehuneko 10 gehitu ondoren hura hainbanatzetik ateratzen dena ordaindu beharko dute.